

PRAILEAITZ I ETA BERE MENDI-HEGALAREN ALDE (DEBA, GIPUZKOA)

Mende luze bat baino gehiagoko tradizio baten emaitza dira gaur egungo ikerketa arkeologikoak. Garai horren barnean eraldaketa sakon ugari gauzatu dira ikerketa arkeologiko horren helburuetan eta horiek lortzeko jarraitu diren metodoetan eta teknikan. Soilik objektu bitxiak edota paregabeak eta monumentuak aztertzetik, aztarnategia bere osotasunean ikertzeraz igaro da, eta arkeologiak azken aldian, berriz, bera kokatzen den lurraldea ere bai. Gaur egungo arkeologi ikerketak-lerroek tokien edo aztarnategien ikerketaz gain, hauen kontserbazioa eta sendotzea bultzatzen dute. Jarduera hauen guztien azken helburua honakoa da: aurkikuntza horiek irakaskuntzarantz edo ikerkuntzarantz bideratzeaz gain, gizartean zabaltzea, haiek erakustearen edo musealizatzearen bitartez, eta, kasu hauetan, ez soilik aztarnategia ikusgai izanez, baizik eta baita bera kokatzen den paisaia ere.

Horretarako oinarrizko hiru zutabe bermatu behar dira:

1. Landa-ikerketa (indusketa, datu-bilketa).
2. Datuak ikertzea eta interpretatzea.
3. Tokia ikusgarri egotea eta hurbileneko inguruan ondo txertatuta egotea.

Hiru zutabe hauek are zentzu handiagoa hartzen dute sakratuaren munduarekin zerikusia duten gaiak azaldu eta ulertu nahi direnean, hor adierazten baita Historiaurreko gizakiaren abstrakzio eta traszendentzia gaitasuna.

Gurea zientzia konplexua da, “ubi historia silet lapides ossaque loquuntur”. Agiri oso hauskorretan oinarritzen da gure ikerkuntza eta hauek beren zentzua galtzen dute jatorrizko euren berezko testuingurua kentzen bazaie.

Horregatik, gaur egun, ez dira soilik aztertzen haitzuloak eta haien edukiak. Paisaiak, egunerokoaren eta sagaratuaren batasun orokorraren katalizatzaile gisa, garrantzia erabakitzailea hartzen du gertaera historikoa bere osotasunean ulertzeko.

Ez dira Elkarte Autonomoan sakratutasuna agerian lagatzen diguten horrenbeste leku prehistoriko. Hori dela eta, horien kontserbazio egokiak eta zuzenak kezkatu egiten gaitu, batez ere agiri hau sinatzen dugunoi, Zientzia Prehistorikoaren eta Arkeologikoaren irakasleoi eta profesionaloi.

Suntsitzea oso erraza da eta gizarte barbaro eta fundamentalistei dagokie. Aldiz, gizarte zibilizatuen eta aurreratuen ezaugarria da geure jatorriak ulertzeko haiek kontserbatzea, iragan hori zaintzea nahitaezkoa baita gizartearen orainaldia ulertzeko eta etorkizunerantz proiektatzeko. Horregatik guztiorregatik, uste dugu, guztiz beharrezkoak direla Praileaitz I haitzuloaren (Deba, Gipuzkoa) eta bera kokatzen den mendi-hegalaren kontserbazioa, Goi Pleistozenoaren amaierako Euskal Historiaurrea ulertu ahal izateko.

Javier Fernández Eraso, EHUko Historiaurrean katedraduna

José Ant. Mujika Alustiza, EHUko Historiaurrearen irakasle titularra